

Beste erlijioetan ere antzeko maisu-maistrak daude, fededunak erlijiozko bidean gidatzeko. Ik. Nobizetza.

Erljiozko maisua irakaslea edo doktorea baino gehiago da: inguratzten zaizkion dizipuluaren gidariarena, aholkulariarena eta hezitzailearena egiten du. Horrelakoa da \*guru-a hinduen artean, akaria \*jainismoan, \*bhikhu-a budismoan, \*rabbi-a judaismoan. Elizan ere fedeko maisutzat hartzen dituzte sarritan animako \*artzainak, maisutza eta artzantza elkarrekin lotuz.

3. Zenbait \*erlijioso-ordenatuko nagusiei ere maisua titulua ematen diete. Domingotarren maisu jenerala, ordena militarretako maisu handia, etab.

Ik. Rabbi; Guru-a; Swami; Arimako zuzendaria.

### Maitasuna

Sin.: Amodioa; Onginahia

Erljioaren alorrean maitasunaz mintzatean, hiru dimentsio ukitzen dira: Jainkoaren dohain gisa, berak izaki eta gizakienganako duen maitasuna (onginahia eta urrikaltasuna); gizon-emakumeen Jainkoaganako maitasuna, Harekin bat egiteko joera dena nahiz Harekiko menekotasuna eta konfidantza; gizon-emakumeen arteko maitasuna, bere jatorria, iturria eta oinarria Jainkoagan duena.

Maitasunaren eta erlijioaren kidetasuna eta maitasunaren "jainkozotasuna" nabarmen gelditzen da hainbat erlijio politeistatan beste jainkoen artean maitasunaren jainkoa aurkitzen dugunean (Indiako Kama, Babiloniako Ixtar, Greziako Afrodita eta Eros, Erromako Venus, Herri semitikoetako Astarte, etab.). Giza maitasunaren zaindari edo babesle dira jainko horiek. Bestalde, \*mitologiak beterik daude, jainkoen arteko eta horien eta gizakien arteko maitasun erotikozko harremanekin. \*Kristautasunean, berriz, Jainkotasuna bera maitasunarekin berdintzer dute: "Maitasuna da Jainkoa" (1 Jn 4,8).

Kristau-teologiaren maitasunari buruzko gogoetaren abiapuntua baieztapen horixe da: Bertute teologaletan nagusia eta behinena, San Paulok dioenez eta Elizaren irakatsiaren arabera. Jainkoaren ekintzaren eta gizakiak bere bizitzan eman beharreko erantzunaren abiaburua edo printzipioa da maitasuna. G. van der Leew-ek, erlijioen sailkapena egitean, azken gailurrean kristautasuna jartzen du, "maitasunaren erlijiotzat" definituz, haren ezaugarri eta bereizgarritzat.


Maitasunaren kristau-adiera teologikoa esateko, karitatea ere erabiltzen da, latinezko caritas hitzetik datorrena. Horren bidez itzuli nahi dute teologoek Itun Be-

rriak erabiliriko grezierazko \*agape hitza, filia eta \*eros kontzeptuetatik bereiziz. Maitasuna edo amodioa hitza erabiltzen ditugu euskaraz guzti horiek adierazteko, baita bertute teologala adierazteko ere. Baina jainkozko maitasuna bereizteko \*goi-maitasuna ere esan ohi da. Ik. Bertute teologalak.

Kristau-maitasun teologala Jainkoaren dohaina da, eta graziarekin berberarekin berdintzen da funtsean.

Itun Zaharrean aurkitzen diren bi aginduak: Jainkoa maitatzekoa eta \*lagun-hurkoa maitatzekoa, batera ekartzen ditu Jesukristok, ez bait dago Jainkoa maitatzerik lagun-hurkoa maitatu gabe eta lagun-hurkoaganako maitasun teologikoa Jainkoagan oinarritzen eta gauzatzen da. Bestalde, Itun Berriak zabaldu eta absolututu egin du lagun-hurkoaganako maitasunaren agindua, gizaki guztiak, etsaiak ere bai, maitatzera behartuz. Ik. Etsaienganako maitasuna.

Erljiozko maitasun teologikoaren kontzeptua aurkitu ohi da nolabait beste erlijio zenbaitetan ere. Erljio mistikoetan, baita erlijio profetikoetan nabari ohi diren joera mistikoetan ere, Jainkoarekin batzeko indarra da maitasuna, sarritan maitasun erotikoarekin lotuta doana.



Gurutzefika. Jainkoaren gizon-emakumeengana-ko oinazezko maitasun salbagarriaren irudia Kristautentzat. (14. m., St. Georg, Kolonia).

## Maitasun zerutarra

Baina bai hinduismoan (\*bhakti izeneko jaieran), bai budismoa \*mahayana-ko \*Bodhi-zatwa-n, bai \*sufismoa mistikan, badago maitasun teologikoaren beste kontzeptua, umearen aitarekiko konfidantzarekin eta horren bidezko salbamenarekin zerikusi handiagoa duena, eta ekintzetan agertzea eskatzen duena. Erlijiozko korrante mistikoetan ez da gizakien arteko maitasunezko lotura eta \*elkartasuna nabarmentzen, eta bai norberaren salbamenarako Jainkoarekiko batasuna, erlijio profetikoen alderantziz. Judaismotik eta kristautasunetik aparte, lagun-hurkoarenganako maitasunaren eskakizuna erlijio askok daukate ipinia: \*Manikeismoak, sufismoak, hinduismoa bhakti korronteak, etab. Ik. Erlijio mistikoa; Erlijio profetikoa.

Kristauak hasieratik Jesukristoren jarraikariak ezaugarritzat ipini izan dute maitasuna, San Joanen esanaren arabera: "Maita ezazue elkar; honetan antz emango dizue, nere jarraikariak zaretela: elkar maitatzean". Batzutan Itun Zaharreko Jainkoa --beldurraren Jainkoa omen dena-- Itun Berrikoarekin --edo maitasunaren Jainkoarekin-- aurrez aurre jarri izan dute.

Elkarrenganako maitasunak, berriz, Jainkoagan du bere iturria eta Jesukristogan bere eredia. Kristok gurutzean bere bizia eskaintzean agertzen duen azkenerainoko maitasuna da kristauaren maitasunaren eredia.

Erlijioen historian zehar, gizon-emakumeen arteko maitasunaren erizpideak ezberdinak dira, bai horren neurriei bai horren zabalerari begira. Kristautasunak ez du neurririk ez mugarik jartzen horretan. Nork bere burua bezala maitatu behar du lagun-hurkoa; areago, Jainkoak hori maitatzen duen bezala.

Nor da, ordea, lagun-hurkoa? Erlijioen historiaren hasieratik oso zabaldua dago lagun-hurkoaganako maitasuna fede bereko komunitatera mugatzea. Itun Zaharreko maitasun-agindua ere israeldarren Herriaren mugeetatik haraindi ez da behartzailea. Budismoak eta partez islamismoak gizon-emakume eta Herri guztietara zabalitzen dute maitasunaren eremua. Kristautasunak, berriz, erabateko bihurtzen du maitasun-aginduaren unibertsaltasuna, etsaiarenganaino zabalduz agindu hori. Maitasunak berak bihurtzen du lagun-hurko etsaia ere, Ebanjelioko samariar onaren parabolari adierazten denez.

Ik. Jesukristo; Hamar aginduak; Elkartasuna; Egintza onak; Bizia.

Paulo Agirrebaltzategi

## Maitasun zerutarra

Ik. Goi-maitasuna.

## Maitasun-damua

Ik. Kontrizioa.

## Maitreya

Paliz Metteya.

Etortzekoa den Buddha-ri ematen dioten izena. Izatez, budismoak sinesten du, Gautama Buda (Buddha) baino lehenago beste Buddha edo Argitu batzu agertu ziren bezala, haren ondoren ere izango direla Buddha berriak.



Maitreya-ganako sinestea eta horren gurtza itxaropide mesianikoaren gisakoan gauzatu da, Tibet-en eta Mongolia-n hainbat aldiz honelako idazkunean agertzen denez: "Zatoz, Jesus Jauna" esakunearen bidez adierazten zuten itxaropide eskatologikoa gogoratzen digu.

Ik. Mesianismoa; Budismoa; Argia.

## Mâyâ

Hitz sanskritoa. Irudipena esan nahi du. Hinduismoan, \*Advaita eskolan, garrantzi handia du, munduaren egoera irudipenezkoa edo azalekoa adierazteko; munduaren benetako izatea ezkutatzeko duen estalkiaren modukoztat definitzen dute. Maya ez da iruzur hutsa; ez da oker ibiltze hutsa. Maya ez da norberaren ezjakintasuna, gauzen beraien izaera baizik, benetako izatea ezkutatzeko diguna.

Advaita-k eman dion erlijiozko garrantziag gain, ezagutza-prozesu osoaren legea adierazten du maya-k.

## Makulua

Beren karguaren adierazgarritzat \*apezpikuek, \*abatek, \*abadesa batzuk eta beste